

GRADU AMAIERAKO LANA

Haur literatura genero ikuspegitik aztertzen: Lehen Hezkuntzako irakurleentzako literatura berriena (2010-2020)

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

2020-2021 ikasturtea

TUTOREA: ALEXANDER GURRUTXAGA MUXIKA

EGILEA: AMETS BAÑALES URTASUN

Hezkuntza eta Kirol Fakultatea / Vitoria-Gasteiz

Lehen Hezkuntzako Gradua

LABURPENA

Ipuinak hurrek haien egunerokotasunean erabiltzen dituzten baliabideak dira, eta ukaezina da haien hezkuntza-funtzioa. Hala ere, genero-berdintasunari dagokionez, gizarteak eman nahi duen ikuspegiak ipuinen eta horiek dituzten ilustrazioen funtzioa zalantzan jartzen du; izan ere, genero estereotipoak betidanik existitu izan dira eta eragin handia izan dute jendartean. Ikerketa honetan, Galtzagorri elkarteak egiten duen ezinbesteko obren zerrenda oinarritzat hartuta, 2010etik 2020ra argitaratutako liburu zenbait aztertu dira, genero ikuspegitik. Ikerketaren xede nagusia Lehen Hezkuntzako irakurleei bideratutako haur-ipuinetan generoa nola lantzen den aztertzea da.

Hitz gakoak: haur literatura, genero ikuspegia, estereotipoak, genero rolak.

RESUMEN

Los cuentos son recursos que utilizan los niños y niñas en su día a día y su función educativa es innegable. Sin embargo, en lo que se refiere a la igualdad de género, la visión que la sociedad quiere aportar cuestiona la función de los cuentos y sus ilustraciones, ya que los estereotipos de género han existido desde siempre y han tenido un gran impacto en la sociedad. En este estudio, tomando como base el listado de obras imprescindibles que realiza la asociación Galtzagorri, se han analizado algunos de los libros publicados entre 2010 y 2020 desde la perspectiva de género. El objetivo principal de la investigación es analizar cómo se trabaja el género en los cuentos infantiles dirigidos a lectores y lectoras de Primaria.

Palabras clave: literatura infantil, perspectiva de género, estereotipos, roles de género.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. JUSTIFIKAZIOA	5
3. MARKO TEORIKOA	6
3.1. HEZKIDETZA	6
3.2. GIZON ETA EMAKUMEEN PRESENTZIA LITERATURAN	6
3.3. MEZUA	9
3.4. GENEROA ETA GENERO ROLAK	10
3.5. ESTEREOTIPOAK	12
4. HELBURUAK	17
5. METODOLOGIA	18
6. EMAITZAK	21
6.1. PERTSONAIEN KARAKTERIZAZIOA	21
6.2. MEZUA	23
6.3. GENERO ROLAK	25
6.4. ILUSTRAZIOAK	26
7. EZTABAIDA	28
8. ONDORIOAK	31
9. BIBLIOGRAFIA	33
10. ERANSKINAK	36
1. ERANSKINA: Liburuen zerrenda orokorra	36
2. ERANSKINA: Aztertutako liburuen zerrenda	41

1. SARRERA

Emakume eta gizonen arteko desberdintasuna mendez mende egon den errealitate bat da eta, nahiz eta urteak pasa ahala berdintasunera hurbiltzeko aurrerapausoak eman, oraindik lan handia dago egiteke.

Hezkuntzak berdintasunera hurbiltzeko ibilbide horretan paper handia eta garrantzitsua du; izan ere, txikitatik gure sozializazioan, non bai guraso, irakasle zein inguruko jendeak paper handia duten, ezagutza berriak jasotzen ditugu eta era berean balore desberdinak barneratzen ditugu. Are gehiago, sozializazio horren barnean eskolak paper ezin garrantzitsuagoa betetzen du; izan ere, eskolak gizartean hain barneratuta dauden egiturak apurtzeko eta haur eta etorkizuneko pertsona askeagoak sortzeko betebeharra du.

Eskolen barruan, ipuinek garrantzi handia dute eta are gehiago baloreen barneraketan. Izan ere, Garcíaak aipatzen duen bezala (2012), haur-literaturak haurren kontzientzia eratzeko laguntzen du, bai zentzu moralean, bai zentzu kognitiboan eta afektiboan. Arreta, entzute eraginkorra, kontzentrazioa, memoria, pertzepzio- eta analisi-eskemen garapenak sustatzen dute, hitzeko ulermenaren garapena, sensibilitate estetikoaren jabetasuna eta garapena, irudimena, erreferentziako munduaren hedapena eta askotariko egoerei aurre egiteko gaitasuna.

Horregatik, lan honen ardatza haur-literaturan dauden genero-estereotipoei buruzko eta genero-lanketari buruzko ikerketa bat egitea da. Horretarako, dauden ikerketek eskaintzen duten informazioa bildu da, gaiari buruzko zehaztasun handiagoa eskainiz. Material hau jasotzeak eta aztertzeak haurrentzako ipuin tradizionalen eta gaur egun daudenen arteko alderaketa bat egitea laguntzen du.

2. JUSTIFIKAZIOA

Jarrera sexista oso agerian dago oraindik ikasleen artean eta arazo horrekin bizi izan gara urte askotan. Hurrek genero-arauen zurruntasuna hartzen dute bizitzako lehen urteetatik. Etorkizunean diskriminazio-jarrerak eta tratu txarren kasu larriak prebenitzeko, oinarrizkoa da lehen haurtzarotik berdintasunerako hezkuntza izatea eta jokabide-eredu positiboa izatea. Jakina da gaur egun eskoletan oraindik ere sexismoa erreproduzitzen eta iraunarazten duten elementuek irauten dutela: horien artean, erabiltzen den materiala dago, material literarioa, adibidez.

Morónen hitzetan (2010), kultura guztiek beren literatura propioa sortu dute munduari buruz galdetzeko, eta hurrei literatura hori eskuratzeko erraztasunak ematen saiatu dira, bizitzari zentzua aurkitzen laguntzeko. Bistan denez, familiak eta eskolak paper garrantzitsua dute bitartekari gisa prozesu horretan. Beraz, jakin behar dute zein den literatura gomendatua, kalitatezkoa eta lehen adinetarako eskuragarria, eta nola jarri haurren eskura.

Gainera, Morónek aipatzen duen bezala (2010), haurtzarotik literatura jasotzea da jarduera onuragarriena hurrek idatzizko komunikaziorako irizpideak arrakasta izan dezaten, eta tresna pribilegiatua da beren nortasuna eta inguruan duten ingurunea eraikitzen laguntzeko. Horregatik, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasgelek haurren eta liburuen arteko kontaktu bizia eta atsegina bermatuko duten lekuak izan behar dituzte.

Gure egunerokotasunean literatura eta generoa pil-pilean dauden bi aldagai dira, beraz, ezinbestekoa da bien arteko lotura zein den jakitea. Horretarako, urteak pasa ahala izan duen garapenaren berri izango dugu hurrengo paragrafoetan agertuko den genero ikuspegitik gauzatutako ikerketari esker, hots, gaur egungo egoera zein den ikusteko aukera emango digu.

Ikerketa honen helburua jarrera eta balio sexistak ikertzea da, beti ere hurrek gehien erabiltzen dituzten bitartekoak, hala nola haurrentzako ipuinetaz baliatuz. Honen ikerketa egitea oso garrantzitsua da, transmititu ditzaketen jarrera edo balioengatik ez ezik, ipuin hori eredutzat hartzen ari den pertsonari eragin diezazkiokeen ondorioengatik.

3. MARKO TEORIKOA

3.1. HEZKIDETZA

Hezkidetza pertsonen garapenean eragin handia duen prozesua da. Izan ere, Sanchez eta Escabellek aipatzen duten bezala (2012), hezkidetza pertsonen garapen integrala errazten duen hezkuntza-prozesua da, edozein sexutakoak direla ere, eta, ondorioz, hezkidetza-eskolatzat hartzen da sexuagatiko bereizkeria edo mekanismo mota guztiak zuzendu eta ezabatzen dituen, ikasleek beren nortasuna askatasunez gara dezaten benetako berdintasun-giroan eta sexuaren arabera ezarritako inolako baldintza edo mugarik gabe.

Hezkidetzaz ari garenean, berdintasunaz hitz egiten ari gara. Marañonek esan bezala (2018), hezkidetzak haurrak berdintasunean heztea esan nahi du. Horrekin batera, argi izan behar dugu ez dugula hezkuntza mistoarekin nahastu behar, hezkuntza mota horrek haurrak hezten baititu, baina ez nahitaez berdinak. Era berean, haurrak irakaskuntza berean eta erreferente berberekin integratzeaz ari gara. Haurtzarotik, genero-estereotipoen jabetu behar dute, haiekin lan egiteko eta suntsitzeko.

Esan beharra dago betidanik esleitu diren rola haustea oso zaila dela, are gehiago, gure ingurukoek esleitutakoak izanik. Marañonek dioen bezala (2018), haurrak garenetik esleitzen zaizkigun rol horietan aldaketak egin ahal izateko, aniztasunaren lanketa on bat egitea ezinbestekoa da, eta horren gidatzaile gurasoek izan behar lukete. Izan ere, haiek izan behar dira rol desberdinen eredu. Gainera, gure hizkerari dagokionez, hain barneratuta dugun gaztelaniaz maskulinoan hitz egitearen ideia apurto behar dugu, femeninoan ere hitz eginez, pertsonetaz ari garelako.¹

3.2. GIZON ETA EMAKUMEEN PRESENTZIA LITERATURAN

Gutierrezek aipatzen duen bezala (2020) eta Simone de Beauvoir historiako idazle eta feminista ezagunenetako batek esan zuen bezala, "Feminismoa banaka bizitzeko eta taldean borrokatzeko modu bat da". Askok uste dute emakumearen borroka bat dela, emakumeek

¹ Euskararen kasuan, Irene Arrarats, Berria egunkariaren euskara arduradun nagusia, izan da gai honi heldu dion aditu bat. Hainbat hitzalditan, gure hizkuntzan oharkabean ihes egiten digun sexismoaz aritu izan da. Ikus, besteak beste, "Euskarazko hizkera sexista, baita nahi gabe ere" (2020ko azaroa, Gasteiz); hemen ikus daiteke (Gasteizko Udalaren Jabetze Feministarako Eskola): https://www.youtube.com/watch?v=CB_LnsenuHk

jasaten baitituzte horrelako errealitateak. Baina argi dago denok ez badugu gizarte honetan berdintasunaren alde borrokatzen lortu nahi ditugun helburuak ez ditugula lortuko.

XIX. mendearen erdialdera arte emakumeek literatura munduan zuten papera oso txikia zela zirudien. Hala ere, horrek ez du esan nahi ordura arte idazlerik ez zegoenik. Ezta beti alde batera utzi zituzten kanon literarioetan egotea merezi ez zutenik ere.

Betidanik, emakume idazleek bere lanari ahalegin eta maitasun handia eman arren, ez da oso balioetsia izan. Gutierrezek aipatzen duen bezala (2020), bizitzaren beste arlo guztietan bezala, emakumeen lana ez da oso estimatua izan, eta idazketaren alorrean ere emakumeenganako diskriminazioa presente egon da. Emakumea eta gizona berdinak sortuak izan direla argi badago ere, tamalez, emakumearen gorpuzkera fisikoa eta emozionala aitzakiatzat hartzen da emakumea beheragokotzat hartzeko. Literaturaren alorrean, emakume askok izenorde maskulinoekin argitaratu behar izan dituzte beren lanak, onartuak izateko.

Gutierrezek ematen dituen datuetan begirada jarrita (2020), gaur egun oraindik diskriminazioa dagoela erakusten dute. Virginia Wolfek, bere garaian, idazleen aldeko bira bat eman zuen, baina hala ere diskriminazioak oraindik jarraitu egiten du. Eta horren erakusgarri da gaztelania arloan 4 idazle feminorik eta 37 idazle maskulorik baino ez zaiela saria eman. Era berean, literaturako Nobel saria 117 bider eman da, eta horietatik 16 alditan soilik saritu dira emakumezko idazleak.

Herederok, Laura Freixasen hitzak jasota (2020), aipatzen du bistakoa dela, historikoki, idazleen artean gizon baino emakume gutxiago egon dela. Haren arabera, hiru motatako arrazoiak eman dira, baztertzailak ez direnak: emakumeek ez dute izan artista-lanbidean aritzeko behar den hezkuntza eta askatasuna; emakume idazleen kopurua, aldiz, gora egiten du, eta gizonek izpirituaren obrak sortzen dituzte, eta, azkenik, artearekin berarekin eta emakumeak baztertzeko izan ditzaketen mekanismoekin zerikusia dituzten arrazoiak.

Riañok aipatzen duen bezala (2019), Kultura Ministerioak publiko egin zituen datuen arabera literaturan, egile femeninoen kolektiboak maskulinoak baino proportzio handiagoa du haur eta gazteentzako liburuetan, testu-liburuetan eta literatura-sorkuntzan. Emakume idazleen artean, % 29,4 literatur sorkuntzan aritzen da; gizonen artean, aldiz, % 27,4. Gizonek nahiago dute gizarte-zientzietan eta giza zientzietan zentratu (haien lanen % 38,9 dira). Emakumeek

haurren eta gazteen arloan ere nabarmentzen dira, % 15,4 izanda, eta gizonak, berriz, ehuneko txikiagoa dute: % 6,7.

Gaur egun, emakumeen literatura existitzen den ala ez eztabaidatzen ari gara, hau da, emakumeek bakarrik sor dezaketen literatura bat ba ote den; hala ere, badira ikusmolde horren aurkako iritziak, idazlearen lan profesionala berbera dela defendatzen dutenak, eta, beraz, biek genero guztiei buruz idatz dezaketela eta literatura bereizirik ez dagoela defendatzen dutenak.

Hezkuntzari dagokionez, emakumeak dira gure hezkuntza-sisteman egiten dugun mundu-ikuskeratik kanpo geratzen direnak. Arroyok aipatzen duen bezala (2013), ikasgeletan emakumerik gabeko kultura transmititzen ari gara. Ikasle batek idazleak daudela jakiten badu, ez da ikasgela barruan izango, ikasgelatik irtetea baizik. Eta hori porrot sozial handia da. Absentzia hori legitimatzean, galera kultural handia eragin dugu, baina ez bakarrik emakumeentzat, baita gizonentzat ere.

Ez dezagun ahaztu hezkuntza kultura transmititzeko funtsezko tresna dela. Derrigorrezkoa denez, herritar guztiei ematen die prestakuntza; baina, gainera, gertakariak, protagonistak eta kontatzeko moduak hautatuz, partekatzen ditugun erreferenteak eta eredu kulturala eskaintzen ditu. Irakasgai guztiek entretenitzen duten kontakizun honek gure historiaren memoria jasotzen du. Eta horrek mundu-ikuspegi oso bat ematen digu. Ikuspegi horrek ez ditu emakumeak aintzat hartzen. (Arroyo, 2013).

Haur-literaturaren eta sexismoaren atalarekin jarraituz, esan dezakegu literatura tradizionalak, oro har, neskontzako ereduaren pobrezia erakusten duela, eta, beraz, idazleek azkenean eredu maskulino arrakastatsuak hartzen dituztela. Tapiaren arabera (2016), pertsonaia femeninoak askoz ere urriagoak dira pertsonaia maskulinoak baino, eta, era berean, erakargarritasun gutxiago dute pasibotasunagatik eta ekintza ezagatik. Idazle maskulinoek gizon mota guztiak hartzen dituzte erreferentziatzat, eta pertsonaia desberdin askorekiko enpatia senti dezakete eta portaeren katalogo zabal bat eman nahi dute; neskek, berriz, portaera-katalogo eskasa eta oso pobrea dute, emakumeekin edo oso onekin edo txarrekin, eta oso ederrak edo oso itsusiak, baina guztiak ezkontzaren helburuarekin edo mendekotasunaren eta jarduera fisiko eskasaren ideiarekin. Zorionez, Díazek aipatzen duen bezala (2005), urteak pasa ahala, aldaketa-adierazpen oparo gisa proiektatzen diren joera eta ikuspegi berriak aldarrikatu badira ere, argi dago, halaber, haurrentzako ipuinetan pertsonaia femenino bat erabili dela nagusiki,

zalantzazko protagonismoa duten rol zurrun eta eskematikoetara mugatzen dena, hartzailea maskulinoa denean sexismo arrisku bikoitza duten ondorioak indartuz.

3.3. MEZUA

Ipuinak oso garrantzitsuak dira, zailtasunak gainditzeko mezuak transmititzen dituztelako. Gainera, sexuaren arabera bereizitako balioak ere transmititzen dituzte. Balio horiek ipuinetako protagonistek transmititzen dituzte, eta pertsonaia femeninoak nagusiki pasiboak eta delikatuak dira, eta maskulinoak indartsuak eta ausartak.

Ipuinek transmititzen dituzten balioei erreferentzia eginez, aurretik aipatu bezala, pertsonaia femenino eta maskulinoen ezberdintasunak gaur arte iritsi zaizkigun maitagarri ipuin askotan ikusi ira, zeinak haurrek eguneroko portaeran imitatuko dituzten jokabideak eskaintzen dizkiguten. Isak aipatzen duen bezala (2020), maitasun erromantikoaren mitoak maitasunari buruz gizartean onartuta dauden ideia edo sinesmen horiek dira. Nola edo hala noiz, non eta norekin maitemindu behar garen markatzen digutenak. Era berean, azaltzen digutenak “benetako maitasuntzat” hartzen den erlazio bat izateko nolakoa izan behar den. Mito horiek maitasunaren inguruko idealizazioak eragiten dituzte, horietako askok harreman osasuntsu baten parte izatetik urrun geratzen diren jokabideak normalizatuz eta onartuz. Mito horiek ia konturatu gabe barneratzen dira, generoaren sozializazioaren bidez. Familian, eskolan, berdinen artean, komunikabideetan, liburuetan, filmetan eta beste zenbait gunetan transmititzen dira eta horrela hasten dira gure sinesmen-sistemaren parte izaten.

Tradizioz, haurren ipuinek maitasun erromantikoa idealizatzen eta hizpide ditugun mito horiek iraunarazten lagundu dute: printze batek salbatuko dituen printzesa otzanak, dena ahal duen benetako maitasuna eta salbatzeko modu posible gisa, menpekotasuna eta besteekiko erabateko entrega, edo harreman heterosexualak maitasun-modu bakar gisa.

Familiaren maitasunari dagokionez, Luzek aipatzen duen bezala (2014), familiak eraldatzen ari dira, eta haien gain hartzen ari diren konfigurazio berriak ez datoz bat gizartean oraindik nagusi den eredu tradizionalarekin. Rol eta funtzio lehenetsiak dituzten aita, ama eta seme-alaba batek edo gehiagok osatutako familia-eredua gero eta egitura ezberdin eta konplexuagoekin batera existitzen da. Beste familia mota batzuetaranzko bilakaerak (guraso bakarrekoak, guraso bakarrekoak, bananduak, adopziozkoak) familiaren kontzeptua

indartzera garamatza. Gai hau hurrekin lantzeko orduan, beharrezkoa da familia-egitura desberdinak kontuan hartzea, familia-taldearen garrantzia aitortzea, aniztasuna errespetatzea eta balioestea.

3.4. GENEROA ETA GENERO ROLAK

Generoa eta sexua kontzeptuen inguruan eztabaida handia dago, izan ere, askotariko iritzi eta ikuspuntuak daude. Horregatik, oso garrantzitsua da, hezkuntzan are gehiago, kontzeptu hauen lanketa sakon bat egitea.

“Genero” kontzeptuak maskulinitasuna eta feminitasuna eraikitzeko prozesu psikosozialari egiten dio erreferentzia. Prozesu hori pertsona baten sexua zein den jakiten denean hasten da, sarritan, jaio bainoa lehen, eta sozializazio prozesuaren bidez eraikitzen da, pertsona horren izateko, sentitzeko eta jarduteko era markatuko duen rol bat esleitzen zaionean. (Aguirre et al., 2007).

Goyak aipatzen duen bezala (2019), urte askotan zehar genero kontzeptua sexu biologikoarekin lotu izan da. Joera horrek neska eta mutilen arteko bereizketa ezartzera bultzatu du gizartea, neskentzako gauzak eta mutilentzako gauzak daudela sinestaraziz. Ideia hori bereganatu izanak haurrak kategoria batean edo bestean sailkatzera behartu ditu. Haurrek, ikastetxe-komunitatera sartzen direnerako, aipaturiko ikuspegi binario hori oso bereganatua dute, etxean eta kalean izan duten sozializazio-prozesua dela eta. Are gehiago, irakasleek eguneroko ekintzekin, bai jolastuz bai irakatsiz, haurren ikuspegi hori sendotu dezakete, edo nortasunaren ikuspegi zabalagoa eskaini.

Generoa testuinguru kultural, sozial, politiko eta ekonomikoaren araberakoa da (Aguirre et al. 2007), eta hori gizon nahiz emakumeei ezarritako portaera eta funtzioek erakusten dute. Goyaren hitzetan (2019), ikuspegi psikologikotik, generoa oinarrizko hiru elementu dituen kategoria da:

- *Genero-esleipena*: pertsona jaiotzen den unean egiten da, haren genitalen kanpo-itxuratik abiatuta.
- *Genero-identitatea*: sexu batekoa izatearen eskema ideo-afektibo primarioena da, kontzienteena eta inkontzienteena, eta ez bestearena. Hizkuntza eskuratzen den adin

berean (bi eta hiru urte bitartean) ezartzen da gutxi gorabehera, eta sexuen arteko desberdintasun anatomikoa ezagutu baino lehenagokoa da.

- *Genero-rola*: sexu jakin bat duten pertsonentzat egokiak diren gizarte-portaerei buruzko betebeharren, onarpenen, debekuen eta itxaropenen multzoa da.

Sexuak, aldiz, Goyak aipatzen duen bezala (2019), gizakien desberdintasun eta ezaugarri biologiko, anatomiko, fisiologiko eta kromosomikoei egiten die erreferentzia, eta gizon edo emakume gisa definitzen ditu; gizakia ezaugarri batzuekin jaiotzen da, eta horiek unibertsalak dira, hau da, gizarte eta kultura guztientzat komunak eta aldaezinak dira.

Generoaren kontzeptua sexuen arteko desberdintasunean oinarritutako eraikuntza sozial oro gainditzeko harreman eta prozesuen multzoari lotuta dago. Hala ere, gizartea emakumeek bizitza sozial, ekonomiko, politiko eta kulturalerako eremu jakin batzuetan gizonetik duten desberdintasunaz kontzientziatu eta sentsibilizatu nahi da, desberdintasun hori bien arteko desberdintasun biologikoen oinarria dela kontuan hartuta. Genero-kontzeptuari dagokionez nagusitu den beste ikuskera bat emakumeentzat eta gizonentzat sozialki zehaztu diren roleri buruzkoa da. Genero eraikuntza da, eta gizarte bakoitzak bere ezaugarrien arabera emakumei eta gizoni egotzen dizkien desberdintasun biologikoetatik abiatuta sortutako portaera, jarrera, balio, sinbolo eta itxaropenak aztertzen ditu.

Ftahn-k azaltzen duen bezala (2018), generoa sozializazio-prozesuan ikasitako kultura-produktua da, eta, batez ere, haurtzaroko ikasten dena. Bizitzaren etapa horretan oso presente dauden ipuinek definitzen dute gizarteari eta munduari buruzko kontakizuna, eta, horren barruan, emakume izatearen eta gizon izatearen irudia definitzen dute. Ipuina oso tresna erabilgarria da, eta haurrak oro har imitatzen dituen balioak, ezagutzak, jarrerak eta portaerak transmititzen ditu, baina historian zehar eta gaur egun arte erabilera txarra eman zaio.

Raffertyk aipatzen duen bezala (2019), haur gehienentzat, gizona edo emakumea izatea oso naturala da. Haur bat jaiotzen denean, generoa esleitzen zaio, maskulinoa edo femeninoa, ezaugarri fisikoen arabera. Hori haurraren "sexuari" edo "esleitutako generoari" dagokio. Bien bitartean, "genero-identitatea" pertsonak nortzuei buruz duten barne-sentimenduari dagokio. Sentimendu hori ezaugarri biologikoen, garapenaren eraginean eta ingurunearen baldintzen arteko elkarreraginetik sortzen da.

Aurretik aipatutako genero esleipenari dagokionez, ipuinetan ere genero esleipena ezartzen duten zenbait ezaugarri daude. Rebolledok esaten duen bezala (2009), ipuinetan esleitzen diren rol ohikoenak hauek dira:

- Printzea da beti printzesaren salbatzailea.
 - Ipuineko protagonista ez bada ere, beti aurkitzen dio arazoari konponbide bat.
 - Ipuinek printze abenturazale, ausarta eta arduradun bat aurkezten digute.
 - Printzeen irudia oso garrantzitsua da, bestela, printzesak ezingo luke bere arazoa konpondu.
- Maitagarrien ipuinek konkretuki azaleko emakumeak erakusten dituzte.
- Maitasun ideal bat proposatzen digute.
 - Oso ohikoa da pertsonaiak begi hutsez maitemintzea, elkar ikusi besterik ez dute egin beharko bata bestearentzat eginak daudela jakiteko.

Ipuinetan, etxeko esparrua emakumeei bakarrik esleitzen zaie oraindik ere. Errealitateak erakusten digu, tradizionalki hori horrela izan bada ere, badirela emakume ekintzaileak, profesionalak, intuitiboak, independenteak, aktiboak, solidarioak, konprometituak, eta horrela jarrai genezake kalifikatzaileen zerrenda luze batekin, lan-mundua eta familia-mundua bereizten dakitenak, eta, batez ere, esperientzia propioz, bi munduak bateragarri egiten dakitenak, bat bera ere baztertu behar izan gabe. (Rebolledo, 2009).

3.5. ESTEREOTIPOAK

Alonsok aipatzen duen bezala (2017), ilustrazioa argazki, marrazki edo lamina bat da, testu edo inprimaki batean jartzen dena, azaldutakoa grafikoki irudikatzeko, adibideak jartzeko edo emaitza erakargarriagoa izan dadin. Batzuetan, ilustrazioek istorioak kontatzen dituzte testuetan oinarritu beharrik gabe. Hori da album ilustratuen kasua: irudiak hain iradokitzaileak dira, ezen historiaren pisu narratiboa daramaten, baina, oro har, ilustrazioak eta testuak elkarren osagarri dira, eta, askotan, elkarren artean erlazionatzeko moduaren baitan dago haur-ipuin baten arrakasta. Testu bat oso ona izan daiteke, baina ilustrazio txar batekin batera, ez du mereziko. Argi dago ipuin baten atentzioa ematen duen lehenengo gauza, begietatik sartzen den lehen gauza, ilustrazioak direla.

Errok aipatzen duen bezala (2000), irudiek haurrentzako liburuetan duten funtzioa aldatu egiten da narrazioa garatzeko duten garrantziaren arabera. Liburu batzuetan, testuak darama historiaren pisua, eta irudiek ez dute haren garapena aldatzen. Kontuan hartu behar da, hala ere, ilustrazioek beti gehitzen diotela elementuren bat narrazioari, ilustratzaileak, ezinbestean, historiaren interpretazioa irudietan islatzen baitu. Pertsonaien keinuak, perspektiba eta koloreak irudikatzeak, besteak beste, irakurtzen ari den istorioaren aurrean irakurleak duen posizioa baldintzatzen duen sentimendua transmititzen du, eta hori ilustratzaile bakoitzaren estiloaren ondorioa da. Ilustrazio baten aurrean ematen dugun erantzuna ez da irudikatzen duenaren arabera, irudikatuta dagoen moduarena baizik. Gainera, ilustrazioen xehetasun deskribatzaileak aberatsak izan daitezke eta testuan ematen ez den beste informazio mota bat eman dezakete; adibidez, garai historiko jakin baten girotzearen irudikapena.

Ipuinetan agertzen diren ilustrazioek, askotan, bai esplizituki zein implizituki estereotipoak helarazten dituzte. Horren harira, Imaginarioren hitzetan (2020), estereotipo bat irudi, ideia edo nozio aldaezin bat da, talde sozial batek beste bati buruz duena eta jokabide, ezaugarri, trebetasun edo ezaugarri bereizgarriak oro har esleitzen zaizkiona. Estereotipoak aurrez ezarritako ideien eta sinesmenen multzo bat dira, gizarte-talde bati oro har eta bereizi gabe aplikatzen zaizkionak, desberdintasunean oinarrituta: nazionalitatea, etnia, klase sozioekonomikoa, adina, sexua, sexu-orientazioa, lanbidea edo beste batzuk.

Horrekin batera, estereotipoak positiboak edo negatiboak izan daitezke, baina beti dira orokorrak. Horregatik, egiaren zati bat badute ere, errealitatearen ikuspegi desitxuratua eskaintzen dute. Horren arrazoia da oso ezaugarri puntualak handitzen edo absolutizatzen dituztela eta norbanakoak kategoriatan ulergarri batean identifikatzeko eta ezaugarritzeko aplikatzen dituztela.

Edozein diskurtso sozialek bezala, literaturan eta artean ere estereotipoak genero-roleri, kultura-taldeei, arraza-taldeei, talde sozioekonomikoei eta abarri lotuta egon daitezke, errealitate bat irudikatze modu gisa funtzionatzen baitute. (Imaginario, 2020)

Estereotipoak zail desberdinetan eragiten dute, horien artean genero-estereotipoak. Genero-estereotipoari dagokionez, Rodríguezek aipatzen duen bezala (2020), emakumeak eta gizonak nolakoak diren edo nolakoak izan behar duten jakiteko gizartean oso errotuta dauden sinesmenei erreferentzia egiten diete. Estereotipoak gizonak eta emakumeak dagokien

gizartean bete behar dituzten rolak adierazten dituzten sinesmenak dira. Jaiotzen direnetik has daiteke arazo hori, baita urdinezko mutil arketipikoekin eta arrosazko neskekin ere.

Nietoren esanetan (2004), pertsona, kultura edo erakunde bat modu zurrun edo sinpleegian sailkatzen dugunean, estereotipatzen ari gara. Rupert Brownen arabera, estereotipo bat da "kategoria bateko kide gehienek ezaugarri berak partekatzen dituztelako pertzepzioa". Horrek hiru arrazoi nagusi izan ditzake; alde batetik, kategorizazioa eskasa izatea, non talde batzuk oso ohikoak ez diren ezaugarriekin erlazionatzen ditugun. Bestetik, taldeen arteko benetako desberdintasunak eta azkenik, bizi garen kulturaren asimilazioa.

Estereotipoak, orokorrean, nahiz eta gure egunerokotasunean barneratuta egon, negatibotzat hartzen dira. Rodriguezek esaten duen bezala (2020), edozein estereotipo, definizioz, irrazionala eta arriskutsua da eta, beraz, negatibotzat jo daiteke. Hala ere, estereotipoak negatibotzat hartzeaz gain, estereotipoak positibotzat edo neutrotzat ere sailka ditzakegu:

- *Estereotipo positiboak*: Genero jakin batean ezaugarri positiboak dakartzatenak izango lirarteke; adibidez: "Neskak hobeak dira".
- *Estereotipo neutroak*. Inolako balio-judizio positiborik edo negatiborik gabeko ezaugarriak dira; adibidez: "Alemaniarrek ilehoriak dira".
- *Estereotipo negatiboak*: Genero bati balio negatiboa ematen dioten estereotipoak lirarteke; adibidez: "Neskak ez dira onak kirolean".

Rodriguezek aipatzen duen bezala (2020), genero-estereotipoek pertsona baten rola definitzen dute sexuaren arabera, eta, horrekin batera, gizonaren zein emakumearen helburu eta itzaropen sozialak ezartzen ari dira. Horrela, haurtzarotik bilakaera eta garapen desberdinak markatzen dira, eta desberdintasun- eta diskriminazio-egoerak sortzen dira. Prozesu honetan ez du axola estereotipo positiboa, negatiboa edo neutroa den, bi generoen etorkizuneko jarrerak era berean markatuko baititu. Neskak onak izango dira, maitagarriak, etxeko lanez kezkatuak, kirolari gutxi; eta mutilak, aldiz, aktiboak, bihurriak, kirolariak, desordenatuak.

Tapiak aipatzen duen bezala (2016), ipuin tradizionalen bidez generoen arteko berdintasunezko tratuarekin zerikusirik ez duten estereotipoak indartzen dira: pertsonaia femeninoen pasibotasuna, emakumeen helburu bakarra ezkontza izatea, protagonista izateko edertasuna ukaezina izatea, gizonarekiko mendetasuna, etab.

Gainera, ez da inoiz ahaztu behar literatura ez dela neutrala, ideologia eta ereduak transmititzen dituela, bere ideologia eta usteak artelanean islatzen dituen pertsona batek idatzia dela. Tapiaren esanetan (2016), literaturan ez dago ez objektibotasunik ez neutraltasunik; beraz, uneoro esplizitu egin beharko da zein egiteri buruz ari garen, zein garairi buruz, etab.

Rebolledok (2009) aipatzen duen bezala, ipuinetan dagoen sexismoa aztertzerako orduan alderdi hauetan jartzen dugu begirada.

Pertsonaiek hartzen duten rol maskulino eta femeninoei dagokionez, hauek dira:

Gizonezkoa	Emakumeak
<ul style="list-style-type: none"> • Errege boteretsuak • Printze ausartak • Gudari ausartak • Ogro basatiak • Justizia-poliziak 	<ul style="list-style-type: none"> • Erregeen emazteak • Printzesa gaixoak • Sorgin gaiztoak • Amaorde gaiztoak • Neska beldurtiak

Hauek ipuinetan erabiltzen dituzten *objektuak* esanguratsuak dira:

Gizonezkoak	Emakumezkoak
<ul style="list-style-type: none"> • Aginte-makila • Ezpatak • Ezkutuak • Nabeak • Zaldiak • Pistolak • Dirua • Kapak 	<ul style="list-style-type: none"> • Makila magikoak • Erratzak • Pozoia • Apaingarriak eta bitxiak • Koroak • Orraziak eta ispiluak • Ardatzak • Hariak eta orratzak

Pertsonaiek aurkezten duten *jarrerari* dagokionez, hauek bereizten dira:

Gizonezkoak	Emakumezkoak
<ul style="list-style-type: none"> • Balioa • Ausartasun • Oldarkortasuna • Menderatzea • Abentura • Protagonismoa • Adimena • Ezagutzak 	<ul style="list-style-type: none"> • Pasibotasuna • Mendetasuna • Lotsa • Koketeria • Oztzantasuna • Lana • Zuhurtzia • Azalekotasuna

4. HELBURUAK

Lan honen helburu orokorra da Lehen Hezkuntzako irakurleei zuzenduriko literatur lan berrienen inguruko irakurketa kritiko bat egitea, genero ikuspegitik. Hau da, 6 urtetik 12ra bitarteko irakurleentzako euskaraz argitaratutako literatur lanak aztertzea da asmoa, espezifikoki genero ikuspegiari dagozkion erreminta kritikoak baliatuz. Modu horretan, marko teorikoan seinalatu diren hainbat esparru literatur lagin konkretu batean aztertzeko aukera izango da, genero rolei, mezuei, ilustrazioen ñabardurei eta beste hainbat elementuri behatuz.

Konkretuki, honako helburu espezifikoak zehaztu dira ikerketa honetarako:

- Ipuin tradizionaletan eta gaur egungoetan generoa nola lantzen den aztertzea.
- Pertsonaien ezaugarri fisikoak, emozionalak eta sozialak identifikatzea, bai eta ilustrazioak eta genero-rolak nola erabiltzen diren ere.
- Galtzagorri elkarteak ezinbestekotzat hartzen dituen ipuinak genero aldetik aztertzea.

5. METODOLOGIA

Atal honetan, Gradu Amaierako Lan honetarako erabilitako metodologia azalduko da, baita erabilitako teknikak eta materialak eta horien zergatia ere.

Haur literaturan dauden zenbait libururen azterketa egiterako orduan, corpus bat zehaztu da. Hauek izan dira lagin hori ezartzeko kontuan hartutako aldagaiak:

- Liburuen irakurleen adin tartea: 6tik 12ra
- Liburuen urte bitartea: 2010etik 2020rako tartea
- Galtzagorri elkarteak haur-literaturan ezinbestekotzat dituen liburuen zerrendatik abiatzea.

Behin zerrenda osatuta (1. eranskina²), zenbait ezaugarri zituzten ipuinak baztertu ditugu, hala nola:

- Askotariko testuen bildumak eta ipuin tradizionalen bildumak
- Poesia liburuak
- Protagonistatzat animaliak dituzten liburuak
- Genero ikuspegitik azterketa egiteko aldagaiak ez dituztenak

Aipaturiko irizpideak kontuan izanda, 15 liburuko corpusa zehaztu eta aztertu da. (2. eranskina)

Horrez gain, liburuen azterketa egiterako orduan, Torresen hitzak kontuan izanik (2018), testu literarioak aztertzerako orduan kontuan hartu behar diren faktoreen fitxa bat erabili da.

AZTERKETA EGITEKO FITXA

1. **Pertsonaien karakterizazioa:** orekatua al da gizonezko/emakumezko pertsonaien presentzia kopuruari eta garrantziari dagokienez? Pertsonaia femeninoek berezko garrantzia dute, "gauzak egiten dituzte", ala pertsonaia maskulino bati laguntza

² Lan honetan aztertu diren haurrentzako ipuinak identifikatzeko, fitxa tekniko sintetiko bat erabili da. Bertan, izenburua, egilea(k), argitaletxea eta edizio-urtea jaso dira.

<p>emateko baino ez dute balio? Pertsonaia konplexuak eta sinesgarriak dira ala genero-estereotipoetara mugatzen dira?</p>
<p>2. Genero rolak: gizonak eta emakumeak modu berean ezaugarritzen dira? Gehiago nabarmentzen da emakumeen itxura gizonena baino? Neskak ezaugarri topikoki femeninoekin lotzen dira (ahultasuna, enpatia, mendekotasuna, pasibotasuna, sentimentaltasuna)? Mutilak ezaugarri topikoki maskulinoekin lotzen dira (ausardia, independentzia, asertibitatea, oldarkortasuna, enpatiarik eza)? Etxeko lanak emakumeek bakarrik egiten al dituzte? Emakumea objektu sexual gisa irudikatzen da? Abentura mutilen kontua da?</p>
<p>3. Mezua: Badirudi pertsonaia femeninoak kezkatuago daudela beren irudia zaintzeaz beste edozein jardueraz baino? Bakoitzaren fisikoa arma nagusitzat erabiltzen duzue nahi duzuen lortzeko? Ezkontza edo amatasuna dira protagonisten azken jomuga? Maitasunari dagokionez, zer eredu afektibo-sexual sustatzen da? Maitasuna sakrifizioan, menpekotasunean, sufrimenduan, jabetzan edo muturreko idealizazioan oinarritutako ideal erromantiko gisa aurkezten da? Nola tratatzen da afektibitatea? Genero eta sexualitate eredu desberdinak eskaintzen dira?</p>
<p>4. Ilustrazioak eta diseinua. Nola erretratatzen dira pertsonaiak? Neskak eta mutilak kolore eta janzkera estereotipuekin lotzen dira? Estalkiak erakusten al ditu joera sexista bultzatzen duten pertsonaiak, eszenak, koloreak edo tipografiak ("neskentzako liburuak" eta "mutilentzako liburuak")?</p>

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, lau atal sortu dira hautatutako materiala aztertzeko. Lehenengo atalean pertsonaien karakterizazioa aztertuko da. Bertan, pertsonaien arteko orekari eta sinesgarritasunari behatuko zaie.

Bigarren atalean, genero rolak aztertuko dira, haurrentzako ipuinean dauden ilustrazioak aztertuko dira, bertan generoari dagokionez dauden edukiak zehaztuko dira eta istorioan zehar garatzen diren jarduera guztiak behatuko dira estereotiporik agertzen den ikusteko.

Hirugarrenari dagokionez, mezuari hain zuzen, bertan ipuinak transmititzen duen mezua aztertuko da. Mezuaren bidez, fikzioa askotan ez dela errugabea ikusiko dugu. Askotan, liburuek inplizitu sexistak dituzte, eta ezin gaituzte oharkabean pasatu.


Azkenik, laugarrenean, ilustrazioetan jarriko dugu begirada, lan honetan aipatutako sinboloak eta kolorea kontuan hartuko dira eta ezaugarri sexistarik edo estereotiporik dagoen behatuko da.

6. EMAITZAK

Atal honetan, haur-literaturan generoa jorratzeko aukeratutako 15 ipuinei buruzko azterketak eman dituen datuak aurkezten dira, aurretik aipatutako fitxa teknikoetaz baliatuz.

Lehenik eta behin, hurrengo grafiko honetan, 1. irudia hain zuzen, ikusiko dugu hautatutako 15 ipuinetan zenbat idazle gizonetzko eta zenbat idazle emakumezko egon diren, desberdintasuna nabarmena den edo ez ikusiz.

1. irudia




Irudi honetan ikus daitekeen bezala, aztertutako 15 ipuinetatik emakumeak 6 dira eta gizonak, aldiz, 9. Beraz, emakumeek idazleen %40 hartzen dute, gizonek, aldiz, %60.

6.1. PERTSONAIEN KARAKTERIZAZIOA

Ipuinak aztertzerako orduan, aintzat hartutako aldagai bat protagonista izan da. 2. irudian aztertutako liburuetatik zenbatetan protagonista mutila izan den eta zenbatetan neska islatzen da.


2. irudia



2. irudian ikus daitekeenez, aztertutako ipuinetan protagonistaren generoari dagokionez, genero femeninoak presentzia handiagoa du, % 60 hain zuzen, gizonezko protagonistak %40 diren bitartean.

Interesgarria da aurreko bi irizpideak gurutzaturik ikustea ere. Hau da, idazleen generoen arabera banaketa eta protagonisten generoen arabera banaketa elkarren parean jarrita aztertzea. Horren arabera, honako korrelazioa azaltzen da:


3. irudia



Behin idazleen eta protagonisten generoa ikusita, nabarmentzen den beste datu bat da, 3. irudian ikus daitekeen bezala, idazleen generoaren arabera ez dituztela haien protagonistak sortzen eta idazleek protagonista maskulinoen presentzia eta femeninoen presentzia portzentaje desberdinekin islatzen dute. Izan ere, idazleen artean maskulinoak direnak haien protagonistak sortzerako orduan % 55,55 maskulinoei eskaintzen die, protagonista femeninoei % 44,44 eskaintzen dien bitartean. Idazle femeninoetan, aldiz, protagonista maskulinoen erabilera %16,66 da eta protagonista femeninoena, aldiz, %83,33.

Horrez gain, pertsonaiak orokorrean kontuan izanik, 4.irudian aztertutako ipuinetan agertzen diren pertsonaia maskulino eta femenino proportzioa orekatua eta desorekatua islatzen da. Ikus dezakegun bezala, ipuin gehienetan nesken eta mutilen presentzia orekatua dago.

4. irudia



4. irudian islatzen den bezala, aztertutako ipuinetan %66,7an pertsonaiak orekatuak egon dira, %33,3an, aldiz, desorekatuak egon dira. Hots, 10 ipuinetan orekatua eta 5 ipuinetan ez orekatua.

6.2. MEZUA


Ipuinetan agertzen diren mezuak era askotakoak izan daitezke: gerra, itxaropena, kezka, beldurra, etab. Esate baterako, *Hasiera* liburuak itxaropenaren mezua helarazten du. *Bi sagu poltsikoan* ipuinak, ostera, haurrek lehen aldiz bakarrik irteten direnean duten kezka eta beldurra transmititzen du. Baina, ikerketa honetan, konkretuki generoari lotuta dauden

mezuei helduko zaie. Ipuinetan, bai esplizituki zein inplizituki, maitasun mezuak helarazten dira, eta horiek genero ikuspegian eragin handia izaten dute.

Maitasuna ere, jakina, era askotakoa izan daiteke: lagun artekoa, bikote artekoa, familiaren maitasuna, beste batzuen artean, etab. Aztertutako ipuinetan gehien islatzen den maitasuna erromantikoa da, familia tradizionalari eusten dion maitasun-eredu bat: harreman egonkorrak, monogamoak (bikote bakarra), heterosexualak eta, oro har, seme-alabak dituztenak. Adibidez, hala ikusten da *Bi sagu poltsikoan* eta *Zapatagorri* ipuinetan. Izan ere, ipuin hauetan aurretik aipatutako maitasun erromantiko hori islatzen da, aita, ama eta seme-alaba eredu indartuz. Hala ere, *Titirimari* ipuinean adibidez, beste bikote eredu bat islatzen da, homosexuala hain zuzen, bi nesken ezkontza ikusten da bertan.


Aurretik esandakoarekin lotuta, familia egiturari dagokionez, 5. irudian antzeman dezakegun bezala, familia tradizionalak aztertutako ipuinen %80 hartzen dute, eta, aldiz, familia ez tradizionalak edo aipatzen ez diren familiek %20 hartzen dute.

5. irudia



6.3. GENERO ROLAK

Ikerketa honetan genero rola bi motatan bereizi dira: berdintasunean oinarritutakoak eta ezberdintasunean oinarritutakoak. Jarraian ikusgai dagoen 6. irudian, bi rol horiek ipuinetan izan duten presentziaren kopurua azaltzen da.



6. irudi honetan ikus dezakegun bezala, aztertutako 15 ipuinetatik %66,7an genero roletan ezberdintasunak egon dira eta %33,3an berdintasuna islatu da.

Ezberdintasunean oinarritutako genero rola bultzatzen duten ezaugarri desberdinak antzeman dira aztertutako ipuinetan, horien artean hurrengoak daude. Hasteko, *Hiru egun balearen sabelean* gehienbat islatzen den bezala, gizonek erabaki guztiak hartzen dituzte emakumeak laguntzaile moduan edo bigarren plano batean agertzen diren bitartean. Gainera, ipuinetan agertzen diren pertsonaien artean amaren papera hartzen dutenei etxeko lanen (sukaldatzea, etxea garbitzea, etab) eta umea zaintzearen ardura esleitzen zaie, aitak etxetik kanpo lan egiten duen bitartean. Honek guztiak, *Eduaren koadernoan* eta *Oliver Button poxpolin bat da* liburuek estereotipoetan oinarritutako pentsamendua transmititzen dute; izan ere, amak sukaldatzearen beharra du eta aitak ez eta aitak estereotipoetan oinarritutako jarrera erakusten du, bere semeak dituen nahiak urratuz.

Horrez gain, ipuinetan agertzen diren lanbideetan estereotipoak islatzen dira. *Hiltzaileak* ipuinean adibidez, agertzen diren lanbideak gizonei bideratutakoak dira; kasu honetan

suhiltzailea eta gidariak. Gainera, *Bi sagu poltsikoan* ipuinean islatzen den bezala, mutilek maltzuraren, heroia- eta indartsuaren papera hartzen duen bitartean, neska formalaren eta inozentearen papera hartzen du eta eskolako jolas desberdinak egiterako orduan eta logelak ezartzerako orduan, neskak neskekin elkartzen dira eta mutilak mutilekin, ez dira nahasean egoten. Izan ere, aipatutako ipuinean mutilek txantxak eta gaiztakeriak egiten dituzte, neskak formal dauden bitartean eta logeletan sexuaren arabera sailkatzen dituzte. Beste adibide bat *Oliver Button poxpolin bat da* ipuinean ikus daiteke, dantzan neskak bakarrik aritzen direlaren irudia ikusten da, mutilak ez baitaude onartuak. *Hiltzaileak* liburuan baita, neskak mutilaren musua itxaroten duelako irudia islatzen da, mutila heroizat hartuz. Neskak gizonak miresten dituztela ikusten da, heroiak izango balira bezala. Azkenik, *Oliver Button poxpolin bat da* ipuinean gizarteak ezartzen dituen arauetatik at dagoen edozein baztertzen dute, bertan mutil batek gustu desberdinak dituelako iraindu eta baztertzen dutela ikusten da.


Berdintasunean oinarritutako genero rolei erreparatuz, hurrengoak antzeman dira: gizonak eta emakumeak dituzten ohiko roletan aldaketak ikusten dira, horien artean; Martin ipuinean adibidez, zerbitzari bezala gizona agertzen da. Etxeko lanetan bai emakumea zein gizona ikusten da; emakumeak bakarrik ez dute sukaldatzen, gizonak baita egiten dute (adb. Arraroa ipuinean neskak eta mutilak etxeko lanetan aritzen direla ikusten da). Gizarteak neskentzat ezartzen dituen ekintzak hausten dira eta mutil batek egiten ditu: dantzan aritu, soka saltoan ibili, paperezko panpinekin jolastu, marraztu, mozorrotu, kantuan aritu, mutil batek, mutilek praktikatzeko kirolak ditu gustuko eta beste kirol batzuetan aritzen da (adb. *Oliver Button poxpolin bat da* liburuan mutil batek ekintza horiek burutzen ditu). Gizarteak ezartzen dituen rolen kontra, *Titirimari* ipuinean bi neska maitemindu eta ezkontzen dira eta Arraroa ipuinean transexualitateari ikusgarritasun ematen zaio. Azkenik, Martin ipuinean, neskek liskarretan mutilei aurre egiten diete.

6.4. ILUSTRAZIOAK

Ipuinak irakurketara hurbiltzeko oso material didaktiko baliotsua izateaz aparte, ipuin batzuek estereotipoak transmititzen dituzte. 7. irudian, ikusgai dago aztertutako ipuinetatik zenbatetan erreproduzitzen diren estereotipoak.

7. irudia

ESTEREOTIPOAK



7. irudian ikus dezakegun bezala, aztertutako 15 ipuinetatik %68,8an estereotipoak egon dira, eta, %31,1ean, aldiz, ez. Estereotipo horien artean, hainbat motatako estereotipoak antzeman dira. Hasteko, janzkerari dagokionez, 15 ipuinetik 6 ipuinetan aniztasuna ikusi den bitartean beste 9 liburuetan ez da aniztasuna islatu. Aniztasuna argi islatzen da *Arraroa* liburuan; izan ere, neskek zein mutilek gona eta prakak erabiltzen dituzte. *Hiltzaileak* liburuan, aldiz, aniztasun horren presentzia murrizten da; izan ere, gizonek prakak daramatzate eta neskek gona. Gainera, beste ezaugarri bat, ilea da. Liburu gehienetan, *Azken gutuna* liburuan adibidez, ileak sexua finkatzen du; neskek ile luzea daramate eta mutilek ile laburra.

Horrez gain, koloreari dagokionez, ipuin askotan kolorearen esleipena sexuarekin lotzen da, neskek kolore arrosa erabiliz eta mutilek arrosa ez den beste kolore bat erabiliz. Hala ere, orokorrean koloreen esleipena ez da oso nabaria izan eta koloreen erabilera egoeraren arabera kudeatu dute. Esate baterako, *Zapatagorri* ipuinean... (adb. *Zapatagorri* ipuinean koloreei esker irudiek aparteko indarra dute: perretxikoak oso koloretsuak dira, hori-horiak; beltzak basoaren iluntasuna adierazten du, non beldurra den nagusi; gorriak zapatak, eta gorria paisaia, otsoa gertu dabilenean).

7. EZTABAIDA

Haur literatura gure gizartean dauden genero berdintasunaren gabezien isla dela kontuan izanda abiatu da ikerketa hau. Horrela, azken urteetan gure gizartean presente dagoen eta era berean haur literaturan, ipuinetan agertzen diren ezaugarri desberdinen ondorioz islatzen den genero ezberdintasunak duen presentziaz jabetu nahi izan da. Behin datuak bilduta, kontrastatu dezakegu hasieran planteatutako hipotesiak aztertutako ipuinetan isla handia izan duela.

Hasteko, haur literaturako ipuinetan dauden idazleen presentzian antzeman den moduan, emakumeen eta gizonen presentzia nahiko desberdina dela ikusi da. Honek, idazle maskulinoek hartzen duten indarrarekin lotura zuzena du, eta, Gutierrezek aipatzen duen bezala (2020), bizitzaren beste arlo guztietan bezala, emakumeen lana ez da oso estimatua izan, eta idazketaren alorrean ere emakumeenganako diskriminazioa presente egon da. Emakumea eta gizona berdinak sortuak izan direla argi badago ere, emakumearen gorpuzkera fisikoa eta emozionala aitzakiatzat hartzen dira emakumea beheragokotzat hartzeko. Literaturaren alorrean, gisa berean, emakumeen eta gizonen irudiak ez du oraindik proiektzio bera literatur sistemari dagokionez. Gure ikerketak ere hori berretsi du. Are gehiago, Riañok baieztatzen zuen (2019) haur eta gazteentzako liburuetan, testu-liburuetan eta literatura-sorkuntzan egile femeninoen kolektiboak maskulinoak baino proportzio handiagoa duela, baina gure ikerketak ez du baieztapen hori bermatu ahal izan, gure kasuan ere gehiago izan baitira gizonezko egileak.

Jakin badakigu (Tapia 2016) historikoki pertsonaia femeninoak pertsonaia maskulinoak baino urriagoak izan direla, eta, era berean, erakargarritasun gutxiago izan dutela pasibotasunagatik eta ekintza ezagatik. Alabaina, aztertu dugun corpusak aldaketak seinalatzen dituela esan daiteke. Izan ere, kasu honetan, aztertutako liburuetan emakumeek duten protagonismoa mutilena baino handiagoa da. Horrekin lotuta, idazleen eta protagonisten arteko irakurketa konparatua egiten badugu, argi ikusten da desberdintasun handia dagoela. Izan ere, idazle maskulinoek protagonista maskulino gehiago erabiltzen dituzte haien ipuinetan, eta idazle femeninoetan desberdintasuna are nabariagoa da. Emakumezko idazleen lanetan, protagonista maskulinoen presentzia oso eskasa da, eta femeninoena, aldiz, oso handia. Beharbada, desberdintasun hori lotua dago emakumezko

idazleen izan dezaketen kontzientzia feminista handiagoari, zeinak eraman ditzakeen protagonista femeninoen aldeko hautua egitera. Gainera, Díazek aipatzen duen bezala (2005), emakumearen protagonismoa nabarmena izan denean, zalantzezko protagonismoa duten rol zurrun eta eskematikoetara mugatua izan da, eta hau gure ikerketatik ateratako emaitzetan argi ikus daiteke. Izan ere, emakumeak protagonistak izan diren bakoitzean, genero rola ezberdintasunean oinarritu dira. Pentsa liteke, ziuurrenik, azken urteetan oihartzuna hartzen ari den kontzientzia feminista hasia dela haur literaturan ere iragazten.

Ipuinek helarazten duten mezuari dagokionez, ikerketan ateratako datuek bat egiten dute, oro har, Isak (2020) maitasun erromantikoari buruz esaten duenarekin. Izan ere, Isaren hitzetan, tradizioz, haurren ipuinek maitasun erromantikoa idealizatzen eta hizpide ditugun mito horiek iraunarazten lagundu dute. Gure ikerketak bistaratu dituen emaitzetan, gehien islatzen den maitasuna erromantikoa da, familia tradizionalari eusten dion maitasun-eredu bat: harreman egonkorrak, monogamoak (bikote bakarra), heterosexualak eta, oro har, seme-alabak dituztenak. Rebolledok aipatzen duen bezala (2009), haur literaturan esleitzen diren mezuen artean maitasun ideala transmititzen da, eta oso ohikoa da pertsonaiak begiratu hutsez maitemintzea (elkar ikusi besterik ez dute egin beharko bata bestearentzat eginak daudela jakiteko). Hala ere, ikertutako ipuinetan salbuespen bat dago, non beste bikote eredu bat islatzen den, homosexuala hain zuzen (bi nesken ezkontza ikusten da bertan).

Luzek aipatzen duen bezala (2014), familiak eraldatzen ari dira eta haien gain hartzen ari diren konfigurazio berriak ez datoz bat gizartean oraindik nagusi den eredu tradizionalarekin. Horrez gain, rol eta funtzio lehenetsiak dituzten aita, ama eta seme-alaba batek edo gehiagok osatutako familia-eredua gero eta egitura ezberdin eta konplexuagoekin batera existitzen direla aipatzen du eta beste familia mota batzuetaranzko bilakaerak (guraso bakarrekoak, guraso bakarrekoak, bananduak, mihiztatuak, adopziozkoak) familiaren kontzeptua indartzera garamatzala aipatzen du. Hala ere, gure ikerketak agerian utzi du aldaketa hori ez dela uste litekeen bezain sendia. Izan ere, aztertutako ipuinetan familia tradizionalak duen indarra oso nabaria da eta familia ez tradizionalak oso indar txikia du. Hala ere, egia da Luzek aipatzen duen familia eraldaketaren isla txiki bat ematen dela aztertutako ipuinetan, familia tradizioaletik at dagoen irudia eskainiz.

Haur literaturan dauden genero rolei erreparatuz, egindako ikerketan ikus daitekeen bezala, eta Ftah-en hitzekin bat eginez (2018), generoa sozializazio-prozesuan ikasitako

kultura-produktua da, eta, batez ere, haurtzaroan ikasten dena. Bizitzaren etapa horretan oso presente dauden ipuinek definitzen dute gizarteari eta munduari buruzko kontakizuna, eta, horren barruan, emakume izatearen eta gizon izatearen irudia definitzen dute. Ipuina oso tresna erabilgarria da, eta haurrak oro har imitatzen dituen balioak, ezagutzak, jarrerak eta portaerak transmititzen ditu, baina historian zehar eta gaur egun arte erabilera desegokia eman zaio. Bistakoa da aztertutako ipuinek genero rol desberdinak transmititzen dituztela eta horiek irakurleen bizitzaren eragin handia dutela. Aurrekoarekin lotuta, esan beharra dago ikerketako emaitzek Rebolledok esaten duenarekin bat egiten dutela neurri batean (2009). Izan ere, Rebolledok aipatzen du printzeak, pertsonaia maskulinoak, salbatzaile papera izaten duela beti. Ipuineko protagonista ez bada ere, beti aurkitzen dio konponbide bat arazoari. Gainera, ipuinek printze edo protagonista maskulino abenturazale, ausarta eta arduradun bat aurkezten digute.

Horrez gain, Rebolledok aipatzen duenari erreferentzia eginez (2009), gure ikerketan ikusi ahal izan da etxeko esparrua emakumeei bakarrik esleitzen zaiela oraindik ere. Berak aipatzen du, tradizionalki hori horrela izan bada ere, badirela emakume ekintzaileak, profesionalak, intuitiboak, independenteak, aktiboak, solidarioak, konprometituak, lan-mundua eta familia-mundua bereizten dakitenak, eta, batez ere, esperientzia propioz, bi munduak bateragarri egiten dakitenak, bat bera ere baztertu behar izan gabe. Ikerketan ateratako emaitzek argi uzten dute ezberdintasunean oinarritutako rolek indar handia dutela; izan ere, emakumearen papera etxean lan egitearekin edo zaintza esparruarekin erlazionatzen da nagusiki, gizonarena kanpoan lan egitearekin edo heroiarekin erlazionatzen den bitartean.

Azkenik, Imaginarioren hitzek eta ikerketan ateratako emaitzek (2020) bat egiten dute. Izan ere, berak aipatzen du edozein diskurtso sozialek bezala, literaturan eta artean ere estereotipoak genero-roleri, kultura-taldeei, arraza-taldeei, talde sozioekonomikoei eta abarri lotuta egon daitezke, errealitate bat irudikatzeko modu gisa funtzionatzen dute, eta ikerketan ateratako emaitzek haur literaturan genero estereotipoak presente dauden aldagai bat dela argi utzi dute, gure gizartean dagoen aniztasuna alde batera utziz.

8. ONDORIOAK

Behin ipuinetako azterketetatik ateratako emaitzak aztertuta eta adituen ikerketen laguntzaz eztabaidatuta, atal honetan, zenbait ondorio orokor aterako dira.

Ikerketan zehar jorratutako gaiak garrantzia apartekoa dute gaur egun; izan ere, egunero edo ia egunero gure inguruan dauden egoera edo esparru askotan ikus daitekeenez, genero-desberdintasuna edo matxismoa mugara iristen da. Baina hori icebergaren punta besterik ez da, matxismoaren punta ikusgarria, gero ikusten ez den baina hor dagoen oinarri oso bat baitago.

Gradu Amaierako Lan hau egitean, helburu orokor gisa Lehen Hezkuntzako irakurleei zuzenduriko literatur lan berrienen inguruko irakurketa kritiko bat egitea ezarri zen, non haur ipuinetan generoa nola lantzen den aztertu zen. Lan guztian zehar ikusi dugunez, ipuinak oso tresna baliagarria dira balioak transmititzen dituztelako, eta, era berean, ipuinak erreferenteak direlako haurrentzat; izan ere, haurrak ipuinetako pertsonaiekin identifikatuta sentitzen dira eta haietzako jarduketa-eredu dira.

Hortik abiatuta, aztertutako ipuinek eta hortik ateratako emaitzek gaur egun oraindik genero-estereotipoak indartzen dituzten zenbait elementu daudela erakusten dute. Hala ere, lortutako emaitzak egiaztatzean, ikusi da zenbait arlotan 2010eko ipuinetatik 2020ko ipuinetara urrats handia eman dela; izan ere, gaur egunetik gertuago dauden ipuin askok berdintasunean oinarritzen diren ideia edo ezaugarriak helaraztean jartzen dute begirada. Ezin uka, edonola ere, oraindik ere badirela zenbait ezaugarri estereotipatu, errealitatearen ikuspegi partziala eskaintzen dutenak.

Liburuetatik harago joz, ez da ahaztu behar ikasleak berdintasunean hezi behar ditugula, erabiliko ditugun materialak eta tresnak ondo erabiliz; eta, gainera, geure ideiak aztertu behar ditugu, besteei transmititu aurretik. Halaber, ezinbestekoa da hezkidetzan oinarritutako hezkuntza baten alde heztea. Kontzeptu horrek genero-ekitatean oinarritutako hezkuntza konprometitua eskaintzen du; hau da, ikasle bakoitzaren ahalmenak eta indibidualtasunak aitortu behar dira, sexua edozein dela ere, eta, horrela, berdintasunean heztea lortuko da. Izan ere, Sanchez eta Escabellek aipatzen duten bezala (2012), hezkidetzaren pertsonen garapen

integrala errazten duen hezkuntza-prozesua da, edozein sexutakoak direla ere; eta, ondorioz, hezkidetzat eskolatzat hartzen da sexuagatiko bereizkeria edo mekanismo mota guztiak zuzendu eta ezabatzen dituen, ikasleek beren nortasuna askatasunez gara dezaten benetako berdintasun-giroan eta sexuaren arabera ezarritako inolako baldintza edo mugarik gabe.

Laburbilduz, egindako ikerketak azaleratu du literatur esparruan ere aldaketa nabarmen bat ari dela sumatzen. Izan ere, urteak pasa ahala, ipuinetan berdintasunean oinarritutako ezaugarriak islatu dira. Baikorrak izan gaitezke, beraz; baina, hala ere, beharrezkoa da ildo horretan lanean segitzea. Literatur ikerketaren esparruan, konkretuki, etorkizunera begirako ikerketa eta lan eremu interesgarriak zabaltzen dira. Ezinbestekoa da gaur egun gure gizartean dagoen genero arazoaz jabeturik, haur eta gazte literaturan agertzen diren forma desberdinez jabetzea. Esate baterako, ondo legoke ipuin tradizionalen egokitzapen berrietan generoa kontuan izaten den ala ez ikertzea. Gisa berean, interesgarria izango litzateke guk aztertu dugun corpus mugatua zabaltzea eta ikerketa handiagoak egitea ere. Horrela soilik lortuko dugu etorkizuneko liburuetan berdintasuna bultzatzen duten ezaugarriak agertzea. Gure ikerketak hondar ale bat jarri naiz izan du bide horretan.

9. BIBLIOGRAFIA

Aguirre, X, Aguiar, X, Caballero, I, Celis, R, Díaz, S, Lasa, L, Ramirez de Olano, I eta Zarraga, M. (2007). Generoa eta genero-ikuspegia. *CEAR*. Honako webgune honetatik berreskuratua:

http://centroderecursos.alboan.org/ebooks/0000/0209/11_CEA_CUA_2_eu.pdf

Alonso, M. (2017). Por qué son tan importantes las ilustraciones en los cuentos infantiles. *Guiainfantil*. Honako webgune honetatik berreskuratua:

<https://www.guiainfantil.com/articulos/educacion/lectura/por-que-son-tan-importantes-las-ilustraciones-en-los-cuentos-infantiles/>

Arroyo, C. (2013). Escritoras silenciadas en clase de Literatura. *El país*. Honako webgune honetatik berreskuratua:

<https://blogs.elpais.com/ayuda-al-estudiante/2013/05/escritoras-silenciadas-en-clase-de-e-litaratura.html>

Diaz, L. (2005). El protagonismo femenino en la literatura infantil hispanoamericana: reparación de ausencias. *Revistababar*. Honako webgune honetatik berreskuratua:

<http://revistababar.com/wp/el-protagonismo-femenino-en-la-literatura-infantil-hispanoamericana-reparacin-de-ausencias/>

Erro, A. (2000). La ilustración en la literatura infantil. Honako webgune honetatik berreskuratua:

<https://dadun.unav.edu/bitstream/10171/5355/1/Erro%2c%20Ainara.pdf>

Ftah, K. (2018). Roles de género en los cuentos infantiles. *Inedit*. Honako webgune honetatik berreskuratua:

<http://www.ineditweb.es/roles-de-genero-en-los-cuentos-infantiles-art558?%3E>

García, E. (2012). El cuento infantil como herramienta socializadora de género. Honako webgune honetatik berreskuratua:

http://institucional.us.es/revistas/cuestiones/22/art_15.pdf

Goya, I.(2019). Ipuinen bidez genero-identitatean hezten. *Kaiera*. Honako webgune honetatik berreskuratua:

<http://www.kaiera.eus/2019/12/02/ipuinen-bidez-genero-identitatean-hezten/>

Gutierrez, M. (2020). Día de las Escritoras: las mujeres y el arte de escribir. *Redactores Alfa*. Honako webgune honetatik berreskuratua:

<https://redactoresalfa.com/2020/10/19/dia-de-las-escritoras-las-mujeres-y-el-arte-de-escribir/>

Heredero, C. (2020). Las mujeres y la literatura. *Tema del mes*. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://www.uv.es/ccoo/igualtat/035685MujeresYLiteratura.pdf>

H.Riaño, P. (2019). Los hombres publican el doble de libros que las mujeres. *EL pais*. Honako webgune honetatik berreskuratua:

https://elpais.com/cultura/2019/06/06/actualidad/1559805239_962042.html

Imaginario, A. (2020). Significado de estereotipo. *Significados*. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://www.significados.com/estereotipo/>

Isa, A. (2020). Mitos del amor romántico. 6 cuentos infantiles que rompen con ellos. *Creciendo y criando*. Honako webgune honetatik berreskuratua:

<https://www.creciendoycriando.com/cuentos-infantiles-mitos-del-amor-romantico/>

Luz, S. (2014). Cuentos sobre distintas conformaciones de familias. *Mi sala amarilla*. Honako webgune honetatik berreskuratua:

<https://salaamarilla2009.blogspot.com/2014/10/cuentos-sobre-familias.html>

Morón, M.C. (2010). Los beneficios de la literatura infantil. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://www.feandalucia.ccoo.es/docu/p5sd7247.pdf>

Nieto, P. (2004). Prejuicios de género en la literatura. ¿Un problema pasado de moda?. *Universidad autónoma de nuevo león*. Honako webgune honetatik berreskuratua:
<http://eprints.uanl.mx/5547/1/1020150359.PDF>

Rafferty, J. (2019). El desarrollo de la identidad de género en los niños. *Healthychildren*. Honako webgune honetatik berreskuratua:
<https://www.healthychildren.org/Spanish/ages-stages/gradeschool/Paginas/gender-identity-and-gender-confusion-in-children.aspx>

Rebolledo, M. (2009). Siete rompecuentos para siete noches. Honako webgune honetatik berreskuratua:
<https://web.ua.es/es/unidad-igualdad/secundando-la-igualdad/documentos/actua/educacion-infantil/siete-rompecuentos.pdf>

Rodríguez, C. (2020). Estereotipos de género. *Webconsultas*. Honako webgune honetatik berreskuratua:
<https://www.webconsultas.com/bebes-y-ninos/psicologia-infantil/estereotipos-de-genero>

Tapia, P. (2016). El sexismo en la literatura infantil. *La ventana ciudadana*. Honako webgune honetatik berreskuratua:
<https://laventanaciudadana.cl/el-sexismo-en-la-literatura-infantil/>

Torres, I. (2018). Igualdad y sexismo en la literatura juvenil. *Literaturasm*. Honako webgune honetatik berreskuratua:
<https://es.literaturasm.com/somos-lectores/igualdad-sexismo-literatura-juvenil#gref>

10.ERANSKINAK

1. ERANSKINA: Liburuen zerrenda orokorra

❖ 6tik gora

IZENBURUA	ARGITALETXEA	IDAZLEA / ILUSTRATZAILEA/ ITZULTZAILEA	URTEA
Zenbakien guda	OQO-Txalaparta	Idazlea: Juan Darien Ilustratzailea: Juan Darien Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea	2010
Zein polita den Panama!	Pamiela	Idazlea: Janosch Ilustratzailea: Janosch Itzultzailea: Ainhoa Irazustabarrena Barriola	2010
Osaba elefante	Pamiela	Idazlea: Lobel, Arnold	2011
Jonasen ipuinak	Aizkorri	Idazlea: Juan Kruz Igerabide Sarasola Ilustratzailea: Mikel Valverde Tejedor	2011
Augustoren botila	Giltza	Idazlea: Pello Añorga Lopez Ilustratzailea: Jokin Mitxelena	2013
Izenburua: Altxor bat aurkituko dugu	Pamiela-Kalandrak a	Idazlea: Janosch Ilustratzailea: Janosch	2013
Igela igela da	Ttarttalo	Idazlea: Max Velthuijs Ilustratzailea: Max Velthuijs Itzultzailea: Patxi Elizegi Sarasola	2014
Hiltzaileak	Pamiela	Idazlea: Leire Salaberria Ilustratzailea: Leire Salaberria	2014
Basoan barrena	Pamiela-Kalandrak a	Idazlea: Anthony Browne Ilustratzailea: Anthony Browne	2014

		Itzultzailea: Manu López Gaseni	
Ozeanoa	Ttarttalo	Idazlea: Anouck Boisrobert Ilustratzailea: Louis Rigaurd Itzultzailea: Miren Agur Meabe	2015
Koloretako munstroa	Flamboyant	Idazlea: Anna Llenas Ilustratzailea: Anna Llenas	2015
Besarkada	Elkar	Idazlea: Uxue Alberdi Estibaritz Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga Otamendi	2015
Arbola esku-zabala	Pamiela-Kalandrak a	Idazlea: Shel Silverstein Ilustratzailea: Shel Silverstein Itzultzailea: Manu López Gaseni	2015
Xomorropoemak eta beste piztia batzuk	Pamiela	Idazlea: Leire Bilbao Barruetabeña Ilustratzailea: Maite Mutuberria Larrayoz	2016
Urrezko giltza	Elkar	Idazlea: Patxi Zubizarreta Dorronsoro Ilustratzailea: Jokin Mitxelena	2016
Elmer berriro ere	Erein	Idazlea: David McKee Ilustratzailea: David McKee Itzultzailea: Antton Olano	2016
Bainera bete itsaso	Elkar	Idazlea: Miren Amuriza Plaza Ilustratzailea: Irati Eguren Arruti	2016
Azken gutuna	Pamiela-Kalandrak a	Idazlea: Antonis Papatheodoulou Ilustratzailea: Iris Samartzi Itzultzailea: Fernando Rey Escalera	2016
Euskal Herrietako ipuinak	Denonartean	Idazlea: Juan Kruz Igerabide Sarasola Ilustratzailea: Elena Odriozola Belastegui	2017

Arraroa	Pamiela	Idazlea: Ainara Azpiazu Ilustratzailea: Paula Estévez	2017
Titirimari	Txalaparta	Idazlea: Xerardo Quintiá Ilustratzailea: Maurizio A. C. Quarello Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea	2018
A	Denonartean	Idazlea: Lorena Martínez Oronoz Ilustratzailea: Lorena Martínez Oronoz	2019
Oliver Button poxpolin bat da	Pamiela-Kalandrak a	Idazlea: Tomie de Paola Ilustratzailea: Tomie de Paola Itzultzailea: Eva Linazasoro	2020

❖ 8tik gora

IZENBURUA	ARGITALETXEA	IDAZLEA / ILUSRATZAILEA/ ITZULTZAILEA	URTEA
Ebelina Mandarina	Erein	Idazlea: Castillo Suarez Garcia Ilustratzailea: Leire Urbeltz Munuze	2010
Xola eta Ameriketako izeba	Erein	Idazlea: Bernardo Atxaga Ilustratzailea: Mikel Valverde Tejedor	2011
Mitxitxi marriau	Erein	Idazlea: Begoña Durruty Ilustratzailea: Begoña Durruty Sukilbide	2011
Tximeletrak	Pamiela	Idazlea: Xabier Olaso Bengoa Ilustratzailea: Agurtzane Villate Ruiz de Gordejuela	2012
Hasiera	Pamiela-Kalandrak	Idazlea: Paula Carballeira	2012

	a	Ilustratzailea: Sonia Danowski Itzultzailea: Manu López Gaseni	
Amattoren uzta	Alberdania-Erein-Igela	Idazlea: Mayi Ariztia Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga Otamendi Itzultzailea: Patxi Zubizarreta (egokitzailea)	2012
Zapatagorri	Denonartean	Idazlea: Pello Añorga Lopez Ilustratzailea: Jokin Mitxelena	2013
Saba eta Landare magikoa	Ttartalo	Idazlea: Yan Degruel Ilustratzailea: Yan Degruel Itzultzailea: Ibon Plazaola Okariz	2013
Bi sagu poltsikoan	Elkar	Idazlea: Michel Van Zeveren Ilustratzailea: Michel Van Zeveren Itzultzailea: Miren Agur Meabe	2013
Auskalo!	Pamiela	Idazlea: Xabier Olaso Bengoa Ilustratzailea: Agurtzane Villate Ruiz de Gordejuela	2013
UR: Erori nahi ez zuen tanta	Denonartean	Idazlea: Juan kruz Igerabide, Oihane Igerabide Ilustratzailea: Elena Odriozola Belastegui	2014
Akim ihesi	Ttartalo	Idazlea: Claude K.Dubois Ilustratzailea: Claude K.Dubois Itzultzailea: Aztiri itzulpen zerbitzuak	2014
Xola eta lapurra	Erein	Idazlea: Bernardo Atxaga Ilustratzailea: Mikel Valverde Tejedor	2015
Eduaren koaderno	Sushi books	Idazlea: Helena Villar Janeiro Ilustratzailea: Carmen Queralt Itzultzailea: Garbiñe Ugarte Graziante-paraluzeta	2015

Agur, Agur!	Erein	Idazlea: Castillo Suarez Garcia Ilustratzailea: Morkots	2015
Piztipoemak eta beste xomorro batzuk	Pamiela	Idazlea: Leire Bilbao Barruetaña Ilustratzailea: Maite Mutuberria Larrayoz	2016
Martin	Elkar	Idazlea: Alaine Agirre Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga Otamendi	2016
Nemo kapitainaren azken bidaia	Erein	Idazlea: Castillo Suarez Garcia Ilustratzailea: Aitziber Alonso Pikabea	2017
Mari Xor	Denonartean	Idazlea: Yolanda Arrieta Malaxetxebarria Ilustratzailea: Aitziber Alonso Pikabea	2018
Euskal herrietako ipuin gaiztoak: maitagarri, amaizun, sorgin eta herensuge	Denonartean	Idazlea: Juan Kruz Igerabide Sarasola Ilustratzailea: Elena Odriozola Belastegui	2018
Joemak eta polasak	Elkar	Idazlea: Iñigo Astiz Ilustratzailea: Maite Mutuberria	2019

❖ **10tik gora**

IZENBURUA	ARGITALETXXEA	IDAZLEA / ILUSRATZAILEA / ITZULTZAILEA	URTEA
Txori txoroa	Alberdania	Idazlea: Juan Kruz Igerabide Sarasola Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga	2011

		Otamendi	
Txan fantasma	Elkar	Idazlea: Mariasun Landa Etxebeste Ilustratzailea: Jon Zabaleta	2011
Pinotxoren abenturak	Alberdania-Erein-Igela	Idazlea: Carlo Collodi Ilustratzailea: Jokin Mitxelena Itzultzailea: A. Pontesta, K. Biguri, G.J. Goikoetxea	2011
Hiru egun balearen sabelean	Pamiela	Idazlea: Patxi Zubizarreta Dorronsoro Ilustratzailea: Jokin Mitxelena	2011
Bat-batean krispetak	Alberdania	Idazlea: Karlos Linazasoro Izagirre Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga Otamendi	2011
Haizea sahatz artean	Erein	Idazlea: Keneth Grahame Ilustratzailea: Elena Odriozola Belastegui Itzultzailea: Miren Arratibel	2013
Oz-eko harrigarria	Azti Denonartean	Idazlea: L. Frank Baum	2015

		Itzultzailea: Juan Cruz Igerabide	
Hau ez da zoo bat!	Elkar	Idazlea: Alaine Agirre Ilustratzailea: Iratxe López de Muniain	2015
Bihotzak dun-dun	Elkar	Idazlea: Miren Agur Meabe Plaza Ilustratzailea: Enrique Morente	2015
Alizia herrialde miresgarrian	Pamiela	Idazlea: Lewis Carroll Ilustratzailea: John Tenniel Itzultzailea: Manu Lopez Gaseni	2015
Waluk	Astiberri	Idazlea: Emilio Ruiz Ilustratzailea: Ana Miralles Itzultzailea: Bego Montorio	2017
Korri, Kuru, korri!	Ibaizabal	Idazlea: Patxi Zubizarreta Dorronsoro Ilustratzailea: Rebeca Luciani	2018
Abere ba	Pamiela-Kalandraka	Idazlea: Bigara (Itziar Aranburu eta Jon Ander Garcia) Ilustratzailea: Bigara	2020

		(Itziar Aranburu eta Jon Ander Garcia)	
--	--	--	--

2. ERANSKINA: Aztertutako liburuen zerrenda

IZENBURUA	ARGITALETXEA	IDAZLEA / ILUSRATZAILEA/ ITZULTZAILEA	URTEA
Hiru egun balearen sabelean	Pamiela	Idazlea: Patxi Zubizarreta Dorronsoro Ilustratzailea: Jokin Mitxelena	2011
Hasiera	Pamiela-Kalandrak a	Idazlea: Paula Carballeira Ilustratzailea: Sonia Danowski Itzultzailea: Manu López Gaseni	2012
Bi sagu poltsikoan	Elkar	Idazlea: Michel Van Zeveren Ilustratzailea: Michel Van Zeveren Itzultzailea: Miren Agur Meabe	2013
Zapatagorri	Denonartean	Idazlea: Pello Añorga Lopez Ilustratzailea: Jokin Mitxelena	2013
Hiltzaileak	Pamiela	Idazlea: Leire Salaberria Ilustratzailea: Leire Salaberria	2014
Basoan barrena	Pamiela-Kalandrak a	Idazlea: Anthony Browne Ilustratzailea: Anthony Browne Itzultzailea: Manu López Gaseni	2014
Bihotzak dun-dun	Elkar	Idazlea: Miren Agur Meabe Plaza Ilustratzailea: Enrique Morente	2015
Alizia herrialde miresgarrian	Pamiela	Idazlea: Lewis Carroll Ilustratzailea: John Tenniel Itzultzailea: Manu Lopez Gaseni	2015
Eduaren koaderno	Sushi books	Idazlea: Helena Villar Janeiro Ilustratzailea: Carmen Queralt Itzultzailea: Garbiñe Ugarte Grazianteparaluzeta	2015

Hau ez da zoo bat!	Elkar	Idazlea: Alaine Agirre Ilustratzailea: Iratxe López de Muniain	2015
Azken gutuna	Pamiela-Kalandrak a	Idazlea: Antonis Papatheodoulou Ilustratzailea: Iris Samartzi Itzultzailea: Fernando Rey Escalera	2016
Arraroa	Pamiela	Idazlea: Ainara Azpiazu Ilustratzailea: Paula Estévez	2017
Titirimari	Txalaparta	Idazlea: Xerardo Quintiá Ilustratzailea: Maurizio A. C. Quarello Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea	2018
Martin	Elkar	Idazlea: Alaine Agirre Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga Otamendi	2016
Oliver Button poxpolin bat da	Pamiela-Kalandrak a	Idazlea: Tomie de Paola Ilustratzailea: Tomie de Paola Itzultzailea: Eva Linazasoro	2020